



Sareen sarea

Euskadiko Hirugarren Sektore Soziala
Tercer Sector Social de Euskadi

Maiatzaren 12a: Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialaren Eguna Hirugarren Sektore Sozialak pandemia garaian duen funtsezko eginkizuna aldarrikatu du

- Sareen Sareak Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialaren Legearen bosgarren urteurrena ospatu du ekitaldi birtual batean, Iñigo Urkullu lehendakaria eta hainbat erakunde sozialen parte hartzearekin.
- Aurtengo gai nagusia gizarte-erakundeen erresilientzia izan da, Covid-19ko krisiaren aurrean. Pandemiaren eraginari nola aurre egin behar izan dioten azaldu dute hainbat euskal erakundetako ordezkariak, baita behar sozialei erantzuteko martxan jarri dituzten programak ere.

Bilbo, 2021ko maiatzak 12. Gaur goizean Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialaren Eguna ospatu da, [Sareen Sareak](#) antolatuta, sektoreko sareak eta erakundeak biltzen dituen elkarteak. Ekitaldi horrek, 2016ko maiatzaren 12ko 6/2016 Legea indarrean sartu izana oroitzen du. Lege horrek Euskadiko hirugarren sektore sozialean lehena eta oraina markatu baitzuen. "**Eraldaketa sozialeko unibertso bat**" lelopean, Sareen Sareak #SAREIDOSKOPIO kanpaina aurkeztu du. Ideia horren bidez, gizarte-erakundeek egunero lan egiten dute Euskadi bidezkoagoa, solidarioagoa, kohesionatuagoa eta sozialki inklusiboagoa eraikitzeko.

Aurten, gizarte-erakundeek euren eguna ospatu ahal izan dute egungo osasun-krisiari egokitutako formatu batean. "Iaz pandemia bat-batean sartu zen eta ezin izan genuen ezer egin. Aurten ez dugu egun hau ospatzeko aukera galdu nahi izan", adierazi du **Borja Doval Sareen Sareako presidentea**. Zentzu horretan, **ekitaldia zuzenean eman da Sareen Sarearen [Youtubeko kanaletik](#)**, bertan egon ezin izan diren herritar, erakunde eta eragile sozial eta politiko guztiekin egun hori partekatu ahal izateko.

Ekitaldian **Iñigo Urkullu lehendakariak parte hartu du**, eta gizarte erakundeei eskerrak eman dizkie "guztion onerako eta gizarte justuago baten alde egindako lanagatik". Zentzu horretan, Hirugarren Sektore Sozialako erakundeek "ongizate kolektibo hori eraikitzen laguntzen dutela" azpimarratu du, "persona bakoitza oinarri hartuta, parte-hartzea bultzatzen dute, eskubide eta erantzukizun publiko partekatuak defendatzen dituzte esku-hartze sozialaren esparruan".

Bestalde, Sareen Sareako presidentea eta presidenteordeak partekatutako hitzaldian, "**funtsezko zerbitzuak ematen dituen eta pertsonekin konpromiso sendoa duen sektorearen garrantzia**" azpimarratu dute. "Krisi guztietan, eta baita honetan ere, erakunde sozialen lana funtsezkoa da gizartearen ongizaterako, funtsezkoa egoera zaugarrian dauden pertsonen eskubideen babesa bermatzeko",



Sareen sarea

Euskadiko Hirugarren Sektorre Soziala
Tercer Sector Social de Euskadi

azaldu du Borja Dovalek. Gainera, sektoreak erakunde publikoen barruan eta haiekin batera premiazko erantzun bateratuak antolatzeko duen gaitasunaren balioa azpimarratu du elkarteak. **"Gure sektoreak funtsezko rola jokatzen du botere publikoen aliatu gisa pandemiaren ondorio negatiboak murrizteko eta kaltetutako pertsonak laguntzeko"**, azpimarratu du **Soraia Chacón** Sareen Sareko presidenteordeak.

Sareen Saria

Hirugarren Sektorre Sozialaren Eguna, halaber, **Euskadi solidarioagoa, kohesionatuagoa eta inklusiboagoa** eraikitzen lagundu duten pertsonen lana aitortzeko unea da. "Sareen Saria saria **M^a Ángeles Arbaizagoitia** [Fedeafeseko](#) presidenteari eman diogu aurten, boluntariorazan 30 urte baino gehiagoko eskarmentua duena. Bere ibilbide luze eta oparoan erantzun kolektiboak eraiki ditu osasun mentalaren esparruan, eta erreferente bat da sektore osoan, Araban eta Euskadin ere", azaldu du Sareen Sareko presidenteari. Omenaldia eskertu du Arbaizagoitiak eta "osasun mentaleko arazoak dituzten pertsonentzako baliabideetan gehiago inbertitzea" eskatu du, "giza eskubideen errespetua eta pertsonen bizitza autonomoaren sustapena kontuan hartuta".

Erresilientzia pandemiaren aurrean

Aurtengo ekitaldiaren gai nagusia **erakunde sozialen erresilientzia izan da, Covid-19ren inpaktuaren aurrean**. Mahai-inguru bat egin da, ustekabeko ondorioak ekarri dituen pandemiaren aurrean, erakundeek egokitzeko eta erantzuteko izan duten gaitasunari buruz. "Euskadiko Hirugarren Sektorre Sozialak erresilientzia eta bizkortasuna erakutsi du askotariko beharrian sozialei erantzuteko", adierazi du Borja Dovalek.

Lucía Merino [Hirugarren Sektorre Sozialaren Euskal Behatokiko](#) koordinatzaileak moderatutako solasaldi batean, **gizarte-eremu desberdinetako hiru euskal elkarteren esperientziak** entzun ahal izan dira. [Agintzari](#) elkarteko **Yolanda Martinek**, [Agipad](#) elkarteko **Felix Sarasuak** eta [Ascudean](#)eko **Vanessa Resak** krisialdian zehar nola lan egin duten kontatu dute eta zein programa jarri dituzten martxan hainbat behar soziali erantzuteko. Dolu traumatikoari laguntzeko programak, bazterketa-egoeran dauden eta adikzioak dituzten pertsonen laguntzeko unitate mugikorrek edo familia zaintzaileek mendekotasuna duten pertsonekin egiten duten lana izan dira, besteak beste, solasaldian aurkeztutako esperientziak.

Euskadiko Hirugarren Sektorre Soziala eta Sareen Sarea

Hirugarren Sektorre Soziala **herritarren ekimeneko erakundeek, irabazi-asmorikgabeek, osatzen dute** eta horren helburua da gizarteratzea eta zaugarritasuneko



Sareen sarea

Euskadiko Hirugarren Sektore Soziala
Tercer Sector Social de Euskadi

edo bazterkeriako, babesgabetasuneko, desgaitasuneko eta/edo mendekotasuneko egoerak bizi dituzten pertsonen, familien, kolektiboen eta komunitateen **eskubideak modu eragingarrian erabili ahal izaten bultzatzea**.

Gaur egun, **ia 4.000 erakundek** osatzen duten sektoreak **38.000 pertsona baino gehiagori lana ematen die, 138.000 boluntario biltzen ditu** eta **Euskadiko BPGaren %2,3ko** baliokidea den bolumen ekonomikoa kudeatzen du¹.

Sareen Sarea elkarteak 2014an sortu zen eta Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialeko 16 erakunde-sare biltzen ditu. Horiek guztiek hainbat esparru jorratzen dute: desgaitasuna, gizarteratzea, familia, adinekoak, etorkinak, enplegurako zentro bereziak, lan-munduratzeko enpresak edo garapenerako laguntza.

"Gizarte justu eta solidarioago, kohesionatuago eta parte-hartzaileago baterantz aurrera egiteko lan egiten dugu. Elkarlanean, gizarte eredu gizatiarrago batera hurbilduko gaituzten proposamenak eta alternatibak eraiki nahi ditugu", azaldu du Sareen Sareak.

INFORMAZIO GEHIAGO ETA ELKARRIZKETAK ESKATZEKO

Jon Txarroalde Antolín

688 729 340

komunikazioa@sareensarea.eu

¹ 2019ko Barometroaren Txostena. Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialaren Behatokia. 2020ko urtarrila.